

Arduraz jokatzeko deia

Azken eguneratzea: Ostirala, 14 Maiatza 2021 09:11

Argitaratua: Ostirala, 14 Maiatza 2021 09:11



Beasaingo Udala osatzen duten alderdi politikoek datozen egunetan erantzunkizunez jokatzeko eskatu diete herritarrei

Alarma egoera bukatzeak ez du pandemiaren eragina baretu. Egoera larria da oraindik eta pertsonak kutsatzen jarraitzen dute, gaixotzen, hiltzen... Txertatze kanpaina aurrera doan arren gaixotasunaren kaltea ez da desagertu. Astiro badoa ere bagoaz aurrera eta geroz eta gehiago dira txertoa jaso dutenak.

Hala ere, datozen hilabeteetan arduraz jokatzea dagokigu. Soberan dakigu zein diren hartu beharreko neurriak; maskara egoki jantzi, distantzia mantendu, eskuen garbitasuna eta jendarteak saihestu.

Datozen egunetan ospatu beharko genituzken Loinatz jaiak aurten ere ez dira izango. Egun bereziak beasaindarrontzat, urtean behin gogotsu hartzen ditugunak. Baina bigarren urtez ezin izango ditugu ospatu gure herriko jaiak. Ez-jairik ez dago, eta hortaz jabetzea herritar, ostalari, merkatari, elkarte, herri-eragile... bakoitzak bere eremuan, guztion erantzunkizuna da. Udalak bere eskumenekoak diren ardurak eta baliabideak, martxan jarriko ditu neurriak bete daitezen, Udaltzaingoaren ordutegia luzatuz Ertzaintzarekin elkarlanean.

Luze egiten ari zaigu baina zentzuz, arduraz eta konpromisoz jokatzeko garaia da. Guregatik eta gure inguruan daudenengatik, gehien maite

Arduraz jokatzeko deia

Azken eguneratzea: Ostirala, 14 Maiatza 2021 09:11

Argitaratua: Ostirala, 14 Maiatza 2021 09:11

ditugunengatik. Gaixotasunak erakusten digu ahulenak ez ezik, edonor eraman dezakela.

Izango dugu aukera Mariren jaitsieran, danborradan, koadrilen egunean, mozorroen egunean edo barraketan goatzeko. Iritsiko da festa, dantza eta musikaz disfrutatzeke aukera.

Bitartean jokatu gizalegez. Neurriak hartuta ibili edonon eta mantendu ditzagun txukun gure Beasaingo txoko eta bazterrak. Elkar zaindu eta errespetatu gaitzen guztion onurarako izango baita, hurrengoan behar den moduan Loinatz jaiak ospatzeko moduan izan gaitzen. Guztion ardura da, norberarengandik hasiz erantzunkizun hori hartuz. Denon artean gaingituko dugu.